

HERNIALDE

Hernialdeko aurtengo Andre Mari jaiak iristear

08.08.13 - 00:04 - NÚÑEZ | HERNIALDE.

Astebete geratzen zaie Hernialden Andre Mari jaiak hasiera emateko. Aurtun abuztuaren 14an, asteazkena emango zaie hasiera Udaletxeko balkoitik botako den txupinazoarekin. Mozorro eguna izango da eta horregatik zagi-ardora mozturorik joan beharko da. Gauean jolasak eta musika egongo dira.

Hurrengo egunean, hilak 15 Andre Mari Eguna, Meza Nagusiarekin hasiko da egitaraua eguerdiko 12:00etan. Ondoren hamaiketako egingo da herriko elkarteetan. Arratsaldean, 18:30etan herri kirol saioa izango da herriko bi talderen artean Larrañaga eta Loidi-Saletxe bertsolariekin. Ondoren Laja eta Larrañaga trikitilarien saioa izango da goizaldera arte eta afal ondoren, V. Mus Txapelketa herrikoia. Ostiralean, abuztuaren 16an, umeen eguna izango da eta goiz guztian puzgarriak egongo dira. Herriko haurrek bazkaria izango dute eta arratsaldean I.go Txirrindulari igoera herrikoia antolatuko da haur eta gazteentzat. Jarraian haurren eta gurasoen arteko futbol partida jokatu da. 18:00ak aldera Poxpolo eta Konpainiak ikuskizuna eskainiko dute eta ondoren tortilla patata lehiaketa egingo da. Jarraian zagi-ardoa eta Nonnahi taldearen emanaldia.

Larunbatean emango zaie amaiera Andre Mari jaiak Hernialden. Eguerdian Sagardo dastaketa egingo da frontoian txorizo pintxoekin. Arratsaldean herriko dantzariak emanaldia eskainiko dute plazan eta iluntzean herri afaria izango da frontoian. Jaiak agurtzeko Kupela taldearekin erromeria izango da.

TAGS RELACIONADOS

hernialdeko, aurtengo, andre, mari, jaiak, iristear

Publicidad

**Nuevo iPhone - 17€**

Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco.

www.megabargains24.com**Para Solteros Exigentes**

eDarling, es el sitio para encontrar el Amor de tu Vida

www.eDarling.esPara poder comentar debes estar [registrado](#)**Añadir comentario**Iniciar sesión con  [Regístrate](#)

Escribe aquí tu comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)**Mostrando 0 comentarios**[Ordenar por los más recientes primero](#)[Suscríbete por e-mail](#) [RSS](#)